Diska hau **Unbe** mendian dagoen **Sagarminaga** baserrian grabatu genuen 97ko urriaren 13tik 18ra bitarte, **Jose Lastra** soinu teknikari genuela.

Nahasketak **Tio Pete** estudioetan egin genituen, Lastrarekin baita ere.

**Arkaitz** eta **Jon Miner**, **Galder**, **Juan**, **Igor**, eta **Alex**ek materiala utzi ziguten.

Azaleko eta taldeko argazkiak **Lander Garro**k atera zituen, eta diseinua **Eneko Abrego**k borobildu zigun.

Musika eta hitz guztiak gureak dira, "Desio baten ekaitza" (**Egoitz Gurrutxaga**rena) eta "Lau hatz" (**Saharauiar esaera zaharra**) hitzak ezik. "Lau hatz"en gainera, handik zebiltzan ∏**-LT**tar **Rafa** eta **Sanpe**k, eta gure **Urko**k kitarrak eta perkusioak sartu zituzten; eta testua **Hasania**ra (Saharauien Arabiar dialektora) **Suleiman**ek itzuli zigun.

**KASHBAD** gara :

**Gorka**, **Xorkun**, **Txiki**, eta **Gorka**.

Agur bero bat Ibani (Kurrori)
eta bidean lagundu diguzuen guztioi.
**Urte askuan...**
**Mila esker.**

**Harremanetarako: 909 / 44 31 02**

MAKINAK

**Eguzkia gordeketan eta ilargia agerian,**
**azken kaladak irten nau denboraren espaziotik at.**
**Jaurtitako keak ingurunea izkutatu dit**
**eta nere barnean murgildu naiz.**

**Errekaren mugimendu geldoak**
**zabaldu dizkit belarriak, belarraren**
**berdeak, bi begiak.**

**Zer dira belarraren berdeaz elikatzen diren makinak**
**kontrolatzen dituzten gauza horiek?.**

## DEBALUAZIOA

Zeri eutsi behar diot?
Hildakoei, jendeak emandako garrantzia besterik,
ez badiet ematen;
ingurukoak nere intereserako erabiltzen baditut;
kaioletako txoriek nere etxea apaintzen badute.
Zeri eutsi behar diot?
Burdinezko hatzaparrek egun argitan
mendia bortxatzen dutenean
tonto aurpegia jartzen bazait,
kalean amak umea kolpatu eta iraintzen duela
ikusten dudanean bezalako tonto aurpegia...
Zeri eutsi behar diot?
Sorginak aspaldi erre bazituzten
eta zientzia izotzezko pista batetan badabil
progresoaren bide usteletik atzera bueltarik gabe,
frenorik gabe,
asteburuan auto-istripuz joandakoen antzera...
Zeri eutsi behar diot?
Erabakiak nere izenean hartzen badira
eta baloreak kolokan badaude
edo ez badute balio...
Zeri eutsi behar diot?

## HOTZEAN BEROTU

Berotu nintzen eta esan nuen...
joku ankerren partaide izango ez nintzela;
nondik nora nenbilen kontziente izan gabe.
Berotu nintzen, iparra galdu arte.
Berotu nintzen eta esan nuen...
borrokatuz mendiak mugituko nituela;
neurea zen guztia galtzeko prest egon gabe.
Berotu nintzen, lerdea jario arte.
Berotu nintzen eta esan nuen...
nere orroak eramango zituela;
esaten nuenaren kontsekuente izan gabe.

Errealitatetik ideiak amestu,
ametsetatik errealitatea ideiatu
ideietatik ametsak errealizatu.

Ideiek mundua aldatzen badute ere,
Hitzontziek ideiak usteltzen dituzte.
Gure barruko kontraesanak onar ditzagun...
gauden tokitik saia gaitezen ikusten.

Berotu eta egingo banitu...

## ORDU BETE

Itxaron gelaren erlojuak,
iragandako minutuen mezua dakar.
Torturatuei buru gainean,
lehertzen zaizkien kare-ur tantak
bezain astunak....!

Ene ezin egona geroz eta estuago
Erlojuaren tantak geroz eta geldoago...
Hirurogeigarrena igorle eta guzti dator.

Ezereza baino gardenago, isiltasuna gero eta estuago.

## DESIO BATEN EKAITZA

Gelaren iluntasunean
ilargi izpien isladek disimuloz
argitutako ohe nahasian.
Enbatak urraturiko naufragoaren begiradak
sortutako malenkonia...
amodioaren desioz,
isolamenduan, bakardadearen baitan.

Desio baten ekaitza
itzalen mundu honetan...

Denboraren erritmo inperfektoa
suntsitu nahiean, desioan itotzea
jolasa balitz, ezpain hezeen zaporea
haragi xamurrean, arnas pausatua
irrintzi miñiñoen ondorengo asperen luzea
ametsik ederrena izango litzateke.

Desio baten ekaitza
maindire hotzen artean...

Kale bustien usain hotz eta gozoa
hainbat alditan amestutako maitasun madarikatua
nire garunean hiltzekatzen da
biharamuneko ajearen ondorio
latza bailitzan.

Desio baten ekaitza
kale bazterretan...

## EZ DAKIT

Ez dakit, baina... gertatzen da.
Goizetik egunak xumeki esnatu nau.
Bizitzari erreparatu diot eta
ahapeka engainatzen saiatu zait.
Lortzen du, ederra da.
Gaurkoan, nere pausoen atzetik
ibiliko naiz
inorako presarik gabe.
Dena emango dut,musutruk.
Eta ez dut
telebista piztuko,
berri gezur ustelik entzungo...
Bidegabekeriek
amorrarazten bait naute.
Berandu etxeratuko naiz,
iraun arte biziko dut.
(edonon)

## LEHEN AFARIA

Ametsetan sartu nintzen ate handi batetatik,mahai handi batetaraino.

Jende artean nahastu nintzen eta topatu nituen maite nituenak.

Ospakizunerako ipinita zeuden zenbait plater eder mahaiaren gainean.

Menua geuk erabakia zen denok geunden ados mahaibururik gabeko mahaiean.

Bertan dastatu genituen zapore gozoenak.

Bertan edan genituen sentsazio freskoenak.

Atzean geratzen ziren iparrik gabeko nortasun antzuak.

Betirako ahaztuak ziren azken afariak eta elkar saltzeak.

Gure artean nahasten ziren ziegetatik ateratako anai-arreba maiteak.

Gure mahaia argitzen zuen bidean borrokan hildakoen presentziak.

Eta gero hiltzen ginen lasai,hiltzerik gabe,zentzuz betetako bizitza atzean utzita…

… eta nahasten ginen lurrarekin,

ASKE!!

Aske… esnatu bitarte.

## BARREZ

Gauean, ohean
mutil horren ametsa sintonizatu dut,
eta berarekin iragan dut ilargiaren denbora.

Oraindik erdi lotan naiz,
eta kotxeen arteko iskanbilaz ohartu naiz jada!
kotxeen planeta honetan naizela.

Nereganako kontaketak ere hizkuntz arrotz batean praktikatzen ditudan bitartean…

Ondoko amonari "le tiene intrigada" apaizen populazioaren jeitsierak.

Eta barrez lehertzen naiz, eta ez dakit zergaitik!
Jendeak zirkulatzen jarraitzen du
eta kotxeak oraindik hizketan,
Bapatean!
Gizakiak borondatez margoturiko zakur arros bat dakusat!

## SOILIK

Hire legeak kolpatu dik/n
nere azken ametsa,
baina ez di(n)at kezkarik
asko izango di(n)at oraindik amestu gabea.
Gaua heldu orduko jarriko nauk/n lanean, eta
amets bihurtuko di(n)at
orain ez dakidana.
Soilik, ni izorratzean amesten baduk/n
pentsa ezak/n zer egin,
neu bakarrik izorratzen banauk/n.
Ziur egon lortuko di(n)ala,
bestela ez duk/n biharamunik izango…
ez neretzat behintzat!!

## BALDIN BADAITEKE

Uler banezake??
Zuen kontrola hain da beldulgarria, zorrotza…
aitzakirik onena baita patrikak puzteko.
Onar banezake??
Zuen justizia hain da okerra, itsua, gorra…
bidegabekeriak zimaur gozoa baitu hazteko.
Barka banezake??
Zuen bakea hain da santua, ixila, hotza…
requiem-ik egokiena baita gosetuei kantatzeko.

Zerbait zapaldua duenak soilik senti bait dezake
kate hestuaren ordoila!!

Zuen gezurrak hain al dira borobilak??
Zuen burniak hain al dira bidezkoak??
Biontzat berdin daike berunaren bero hotza!!

Norberak bere kontuak atera ditzala.
Norberak bere erruak aitor ditzala.
Norberak bere egindako kalteak neur ditzala…

Jakin banezake!!

بين الحگ والكذب

مطرح أربع أصباع، اللى أمبين
العين ولوذن.
بيه اللى رادو أعليك إليگ يجود
كذب واللى شفت بعينك
تعرفه عنو حك.
دافع عنو ولانك لاهي تخاله
بيك اللى شفتو.

**LAU HATZ**

Egia eta gezurraren artean
ezin dute lau hatz baino gehiagok egon:
belarria begitik banantzen duen distantzia bera,
esan zizutena agian ez baita egia,
gezurra esan bazizuten.
Baina zure begiekin ikusitakoa badakizu egia dela:
egia hori aldarrikatuko duzu, eta ez zaitu inoiz utziko,
ikusi bait duzu.

(saharauiar esaera zaharra)

**MAQUINAS** / El sol al escondite y la luna a la vista. / La última calada me ha sacado del espacio del tiempo. / El humo que he expulsado me ha escondido el alrededor / Y me ha introducido en mí. / El lento movimiento del río me ha abierto los oidos, / El verde de la hierba los dos ojos. / ¿Qué son esos que manejan esas máquinas que se alimentan del verde de la hierba?.

**DEVALUACION** / ¿A qué me tengo que agarrar? / Si doy importancia a la muerte sólo cuando los demás se la dan, / si utilizo los de alrededor para mis intereses, / si los pájaros enjaulados adornan mi casa. / ¿A qué me tengo que agarrar? / Si se me pone cara de tonto cuando las garras de hierro violan al monte, / la misma cara de tonto que se me pone cuando veo en la calle golpear / y humillar la madre a su niño. / ¿A qué me tengo que agarrar? / Si las brujas las quemaron hace tiempo / y la ciencia va en una pista de hielo sin frenos, / al igual que los que se han ido el fin de semana en accidente de coche. / ¿A qué me tengo que agarrar?.

**CALENTANDO EN FRIO** / Me calenté y dije que no tomaría parte / en ese juego sucio, sin tener conciencia de a dónde voy. / Me calenté hasta perder el norte / Me calenté y dije que luchando movería las montañas, sin estar dispuesto a perder todo lo que era mío. / Me calenté hasta segregar saliva. / Me calenté y dije, que un grito se los llevaría, / sin ser consecuente con lo que decía. / Las ideas cambian el mundo. / Los boca zas pudren las ideas. / Aceptemos nuestras contradicciones. / Intentemos verlo desde donde estamos. / Soñar ideas desde la realidad. / Idear la realidad desde los sueños. / Realizar los sueños desde las ideas.

**GOTAS DE MINUTO** / El reloj de la sala de espera / nos trae el mensaje de los minutos pasados / tan pesadas como las gotas de cal y agua / que explotan en las cabezas de los torturados. / las gotas del reloj más lentas, / y sus carcajadas aún más altas. / El sesentavo trae remitente. / Más transparente que la nada, / el silencio cada vez más pesado. / el silencio más pesado, más firme.

**TORMENTA DE UN DESEO** / En la oscuridad del cuarto, en la cama revuelta, iluminada disimuladamente por la luna. / La melancolía que produce la mirada del naufrago, arrasado por la tormenta. / Aislado,en la misma soledad. / Tormenta de un deseo en este mundo de sombras… / Queriendo romper el ritmo imperfecto del tiempo, / si fuese juego ahogarse en el deseo… / sabor de los labios húmedos, en la tierna carne, / respiración pausada, / El largo suspiro después de los gemidos sería el conflicto más hermoso. / Tormenta de un deseo en las sábanas frías… / El olor dulce y frío de las calles, / el maldito amor tantas veces soñado, / Se clava en mi cerebro, como si fuera la consecuencia de la resaca de la mañana. Tormenta de un deseo en las esquinas de las calles.

**NO SE** / No sé, pero… suele pasar. / Desde la mañana el día me ha despertado suavemente. / Le he puesto atención a la vida Y ha intentado engañarme susurrándome. / Lo logra, es bella. / Hoy voy a andar detrás de mis pasos, / Sin prisas. / Daré todo sin esperar nada a cambio. / Y no voy a encender la tele, / ni escuchar noticias podridas, / ni apariencias, ni mentiras… / Porque las injusticias me hacen enfadar. / Voy a ir tarde a casa, / lo viviré mientras dure, donde sea !!.

**PRIMERA CENA** / Me metí en los sueños por una puerta grande, / Hasta una mesa grande. / Me mezclé entre la gente y encontré a los que quería. / Encima de la mesa estaban preparados varios platos para la celebración. / El menú era elegido por nosotros, / Todos estábamos de acuerdo en una mesa sin presidente. / Allí saboreamos los mejores sabores, / Allí bebimos las sensaciones más frescas. / Quedaban atrás las faltas de identidad sin norte. / Estaban olvidadas para siempre las últimas cenas y el venderse mútuamente. / Entre nosotros se mezclaban los queridos hermanos y hermanas salidos de las celdas. / Nuestra mesa era iluminada por la presencia de los muertos que lucharon en el camino / Y luego moríamos tranquilos, sin clavos, dejando atrás una vida llena de sentido… / Y nos mezclamos con la tierra … Libres… Libres hasta despertar.

**RIENDO** / A la noche, en la cama. / He sintonizado con el sueño de ese chico, / y con él he pasado el tiempo de la luna. / Todavía estoy medio dormida y con el ruido de los coches me he dado cuenta de que estoy en este planeta de coches. / Mientras me comunico conmigo misma en un leguaje ajeno, a la abuela de al lado, le tiene intrigada el descenso de la popularidad de los curas, / La gente sigue circulando y los coches aún hablan. / De repente veo, un perro pintado de rosa por la voluntad del humano.

**SOLAMENTE** / Tu ley ha golpeado mi último sueño. / Pero no me preocupo porque todavía tengo mucho que soñar. / En cuanto llegue la noche me pondré a trabajar / y convertiré en sueño / Lo que aún no conozco. / Si sólo piensas en joderme piensa qué vas a hacer / Si me jodo yo solo. / Estate seguro de que lo conseguiré, / Si no, no habrá amanecer, no al menos para mí.

**SI SE PUDIERA** / ¡¿Si pudiera entenderlo?! / Vuestro control es tan terrible, estricto… / Pues es la mejor excusa para llenarse los bolsillos. / ¡¿Si pudiera aceptarlo?! / Vuestra justicia es tan torcida, ciega, sorda… / La injusticia tiene buen estiércol para crecer. / ¡¿Si pudiera perdonarlo?! / Vuestra paz es tan santa, callada, fría… / Qué es el réquiem más adecuado para cantar a los hambrientos. / Por qué sólo alguien que esté oprimido / Puede sentir la roña de las cadenas que le oprimen. / ¿Vuestras mentiras son tan redondas? / ¿Vuestras armas son tan justas? / ¡Para los dos pudiera ser el calor frío del plomo! / Que cada uno saque sus conclusiones. / Que cada uno acepte sus errores. / Que cada uno mire el daño que causa. / Si pudiera saber…

**CUATRO DEDOS** / Entre la verdad y la mentira no puede haber más que cuatro dedos: / la distancia que separa la oreja del ojo. / Porque lo que te contaron puede no ser verdad, / si te mentían . / Pero lo que tú has visto con tus propios ojos sabes que es cierto: / proclamarás esa verdad y ya no te dejará porque lo has visto. / (proverbio saharaui).